

## ESKOLAN HARREMANETAN DAUDEN HIRU HIZKUNTZEN TRATAERA

Hizkuntza proiektuan hauek jasoko dira:

- Euskararen sarrera unea: antolakuntza, irizpideak, bitartekoak eta baliabideak.
- Gaztelaniaren sarrera unea: antolakuntza, irizpideak, bitartekoak eta baliabideak.
- Ingelesaren sarrera unea: antolakuntza, irizpideak, bitartekoak eta baliabideak.

### **A. HIZKUNTZA BAKOITZA NOIZ SARTU ETA BAKOITZARI ESKAINITAKO DENBORA:**

Euskara: Haur Hezkuntzako 3 urteko gelan euskara izanen da arlo gisa erakutsiko den hizkuntza bakarra. Haur Hezkuntzan astean, bost ordu eskainiko dizkio euskarari irakasle tutoreak.

Lehen Hezkuntza osoan Euskara arlo gisa landuko da eta astero 5 ordu eskainiko zaizkio.

Gaztelania: 1. mailatik aitzinera eskainiko da, nahiz, Beran, honen ezagupena ziurtatuta dagoen. 1 zikloan 3 saio eta 2. eta 3. zikloan astean 5 saio eskainiko zaizkio.

Ingelesa: Haur Hezkuntzako 4 urteko gelan hasiko da ematen. Haur Hezkuntzan astean hiru saio emanen dira.

Lehen Hezkuntzan astean 5 saio eskainiko zaizkio.

### **B. HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA:**

#### **Oinarri teorikoak:**

Ama hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesuek gauza asko berdintsuak dituzte, elkarren arteko barne lotura dute eta hau oso aintzat hartu beharrekoa da esku-hartze pedagogikoaren diseinua egitean.

Lehen hizkuntzan eskuratutako zenbait gaitasun linguistiko bigarren hizkuntzaren garapenean onuragarri suertatzen dira edo bigarren hizkuntzaren jabekuntza ziurtatzen dutela aldarrikatzen dute.

Hizkuntza ezberdinen jabekuntza besteekin elkarrekintzan gertatzen da. Hortaz, lehen edo bigarren hizkuntza zenbat eta hobeto menderatu, hainbat eta errezago eta hobeto eskuratuko dira hurrengoak.

Diskurtso generoak hizkuntza guztietan berdintsuak dira, ekoizpen baldintzei berdin erantzuten diete eta testu egitura berdintsua dute. Hizkuntza batetik bestera azaleko osagai linguistikoak aldatzen dira bakarrik.

### **Hizkuntzaren ikas-irakaskuntzaren ikuspegi bateratzailea:**

Arestian aipatutako printzipioetan oinarrituta euskara, gaztelania eta ingelesa ezin dira bakoitza bere aldetik heldu, ez behintzat hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntzen ikaskuntzarako erabilgarria eta onuragarria izatea nahi bada.

Hizkuntzen Curriculuma osatzeko hiru hizkuntzen artean osagarri diren testuak eta komunikazio egoerak hautatu behar dira.

Ahoz nahiz idatziz, testuak izanen dira ikas-irakaskuntza unitateak. Hortaz, lehendabiziko eginkizuna hiru hizkuntzetarako testu horiei bide ematen dieten egoera komunikatiboak hautatzea izanen da, bai hizkuntza idatzirako eta bai ahozko hizkuntzarako.

### **Euskara:**

Honako irizpideen arabera aukeratuko ditugu testuak:

Hizkuntza idatziaren esparruan, eskolak ikasleari eskatzen dizkion erabileretan trebatzeko moduko testuak izatea, hala nola: azalpen testuak, laburpenak, argibideak ematekoak, txostenak... Beste esparru batzuetako testuak ere aintzat hartzen dira, alegia, beste toki batzuetan sortutakoak: gutunak, berriak, argibideak emateko testuak, araudiak...

Ahozko hizkuntzari dagokionez, honako hau izanen dugu irizpide orokorra; ikasleari ikastetxean (gelan nahiz gelaz kanpo) sortzen zaizkion komunikazio egoerei aurre egiteko moduko testuak izatea. Hortaz, erabilera informaleko testuak eta erabilera formalagokoak hartu behar izan ditugu.

Erabilera informalok jolasteko beharrezko duten hizkuntzarekin lotuko ditugu. Lehenengo mailetan, harrapaketan, ezkutaketan, soka jolasean, goma jolasean...

aritzeko hizkuntza sartuko dugu. Hirugarren zikloan, erabilera informalok kirol hizkuntzarekin lotuko ditugu, izan ere, adin honetako ikasle asko futboleak, pilotan, saski baloian, dantzari, aritzen dira jolas garaian.

Beste irizpide bat gaztelaniaren eraginez euskaraz egiten diren kalkoak eta interferentziak zuzentzeko egoerak izatea da. Interferentziok edozein hizkuntzaren irakaskuntzan oso arruntak dira baina landu ezik betikotzeko arriskua dute.

Erabilera formalak hautatzeko eskolako ahozko komunikazio premiak izanen dira kontuan: zerbait adosteko eztabaidak, informazioa elkarri trukatzeko azalpenak, zerbaiti buruzko iritzi emateak...

### **Gaztelania:**

Gaztelaniako hizkuntza idatziko testuak aukeratzeko, ordea, pertsonen arteko erabileretan eta komunikabideetan ematen diren erabileretan jarriko dugu arreta berezia: gabonetako postalak, eskolako aldizkarirako berriak, gonbidapenak...

Beste irizpide bat, gainera, testu mota horiek, ahal dela, aurretiaz beste maila batzuetan euskaraz landuak izatea izanen da.

Ahozko hizkuntzan, ikasle gehienek erabilera informala ezagutzen dute. Beraz, erabilera formalari lehentasuna emanen diogu. Gainera, idatzian bezala, euskaraz aurretiaz landuak izatea izanen da testu mota horiek aukeratzeko erabilitako beste irizpideetarikoa bat.

### **Ingelesa:**

Ingeleseko edukiak aukeratzeko orduan, bi irizpide hartuko dira kontuan, nagusiki. Alde batetik, gelako ahozko elkarreragina ingelesez bideratzeko moduko testuak izatea. Beste alde batetik, aurreko mailetan euskaraz edo gaztelaniaz landuak izatea, ahozko hizkuntzan zein idatzizkoan.

### **Laburbilduz:**

Euskara ardatz harturik, gaztelaniarako eta ingeleserako osagarri diren testuak aukeratzea, hizkuntza batean landutakoa bestearentzat edo besteentzat lagungarri izan dadin.

## **C. HIZKUNTZA BAKOITZAK TRANSMITITZEN DUEN KULTURAREN IRAKASKUNTZA.**

### **C.1. EUSKALDUNTASUNA:**

1. Euskal Herriko Kultur ondarea ezagutaraztea:

- Bertsolaritza, euskal abestiak, dantzak, jaiak, antzerkiak... bultzatuko dira
- Herriko ohiturak ezagutarazi eta bultzatuko dira: Olentzero, Iñude eta Artzaiak, San Juan suteak...
- Gure herriko historia azalduko da garai eta gai esanguratsuenetan.

2. Geografia, gizarte ekonomia eta kultura ingurunean errotzea:

- Egungo muga politikoak alde batera utziz, ondare kulturalaren lurraldetasuna erakutsiko da.
- Ikasleen ikasketa prozesua gertuenetik, bakoitzaren kokagunetik ikuspegi zabalagoetara irekitzen saiatuko da: Berako geografia, inguru fisiko naturala eta ekonomikoa ezagutzetik, Bortziriko, Nafarroako eta Euskal Herri osokoa ezagutzera, baita inguruko beste herrialdeetako ere, hedatuko da.

3. Euskal Herriko kide gisa, kultur nortasuna mamitzea:

- Euskara eta euskal kultur ondarea jasoz mamituko da bere nortasuna propioa duen komunitate bateko kide gisa sentitzea.
- Gizarte eta kultura balioak bereganatu behar ditu ikasleak.
- Helburu horrekin, beste erakunde batzuetatik proposatzen diren kultur ekimenetan parte hartzera bultzatuko dira ikasleak (Lurraren eguna, Korrika...)

### **C.2. GAZTELANIAZ TRANSMITITZEN DEN KULTURA**

Gaztelaniaren bidez transmititzen den kulturari ere garrantzia emanen diogu zenbait ohitura eta berezitasun eskolan landuz: atsotitzak, legendak, kortesia formulak...

Halaber, gaztelaniadun eremuak zeintzuk diren ere aztertuko dira: hurbilekoak (Espainiako erkidegoak) eta urrunekoak (Hego eta Ertamerika...)

### **C. 3. ATZERRIKO HIZKUNTZA ETA BERE KULTURAREKIKO BEGIRUNEA**

Ingelesa hitz egiten den herrialdetako zenbait ohitura eta berezitasun landuko dira, ezberdintasunekiko begirunea eta tolerantzia bultzatuz.

Kultura ezberdinetan kortesia formulak erabiltzeko dauden arauak ezagutzea eta zuzen °erabiltzea eskatuko zaie ikasleei.